



1. BALIO PROPOSAMENA:

Gure bezeroei eskaintzen diegun balioa kualitatiboa da, eskaintzen dugun zerbitzuaren bitartez haien esperientzia errazten baitugulako eta haien ikuspegia denda eta erosketekiko aldatzen baitugulako.

Era berean, gure enpresak eskaintzen duen zerbitzuarekin hainbat behar asetzen dizkiegu kontsumitzailei eta elementu horiei esker lehiakideengatik bereiztea lortzen dugu:

- **Lana errazten** diegu gure bezeroei, bertan denda ezberdinen produktuak aurkitu ditzaketeelako denbora gutxian eta bezeroek ez dute zertan denda online guztietatik nabigatu behar.
- **Berrikuntza** eskaintzen dugu, horrelako aplikaziorik ez dagoelako gure inguruan eta Durangaldeko enpresak ez daude inongo katalogo batean bateraturik.
- Erabiltzeko oso **erraza eta azkarra** da, denda fisikoetan arropa probatu ondoren, aplikazio honetan bildu ditzakezulako gustuko izan dituzun guztiak, eta etxetik erosi.
- **Prezio** aldetik, kontsumitzaileek dohainik erabiliko dute aplikazioa eta aldagai hau gure lehiakideengatik ezberdintzeko oso garrantzitsua da.
- **Enpresa eta negozio txikiak bultzatzen** ditugu aplikazio honi esker eta horrek herriko ekonomiaren hazkundera dakar.
- Katalogo bateratua eta erosketak historialaz baliatuz bezeroekiko **sobrekontsumismoa murriztu**, eta kontsumo arduratsua bultzatu.

Gure aplikazioak edozein dendetako produktuak edukiko lituzke, edozein sektore eta motakoak. Bertan arropen, janarien, etab.-eko dendak agertuko dira. Enpresak, hasiera baten bakarrik ofizina txiki bat beharko luke bidalketak eta erosketak kudeatzeko. Pertsonal handia ez da beharreakoa lan hau egiteko. Aplikazioa erabiltzeko beharrezkoa izango da internetera konexioa eta gailu elektronikoa izatea, besterik ez.

Laburbilduz, guk eskaintzen duguna katalogo bateratu bat da. Hemen, eremu zehatz bateko dendak katalogoa ezagutu ahalko dugu (produktuen prezioa eta eskaintza ere) eta konparatzeko aukera egongo da, baita guk testeatutako produktuak *kalifikatu, gorde* edo *erreserbatu*. Honen bitartez, aplikazioaren bidez erosketak burutzeko aukera izango dugu, era telematikoa batean.



Gure enpresak egindako aplikazioa **dohainik** izango da edozein gailu elektronikorentzat: ordenagailuak, mugikorrak...Beraz, gure **finantziario iturria** **publizitatea** edota **datuen salmenta (COOKIE-ak)** izango dira.

Gainera, gure enpresaren bitartez negozio eta denda herriko edo txikiak suspertuko ditugu, kapital gutxiko enpresei digitalizazioan sartzeko bidea eginez. Dena den, enpresa handiei kobratuko diegu, enpresa txiekiko lehia abantaila handiagoak baitituztelako. Horretaz gain, gure aplikazioak ez du lehiakide zuzenik, denda guztiak bateratzen dituen bakarra baitdelako. Betiere denda legalak izanda.

Printzipioz, gure aplikazioak ez luke lehia zuzenik izango, eta gure lehiarako abantaila nagusia denda txikietako produktuak eskaintzea eta gure aplikazioa gaztelaniaz gain, euskeraz eskaintzea izango zen.